

Soljenitsyn Parisen

Soljenitsyn Parisera etorri da. Batzuren* pozerako, beste batzuren haserrerako, Soljenitsyn, agertzen den bakoitzean, gertakari* bat da. Halaxe Parisen ere. Areago,* liburu bat argitaratu berria duelako. Eta hori ere gertakari bat da.

Hain zuzen, frantsesez argitara berri den «Le Chêne et le Veau» (Le Seuil) bere liburua aurkeztera etorri da Parisera. Ereti* berean, telebistatik ere mintzatu da.

Liburu berri bat. Bat gehiago? esan lezake norbaitek. Oraindik ez dut irakurri. Baina, diotenez, oso interesgarria da. Ez da elaberri* bat. Ez da «dossier» astun bat. Historia bat da. Sobietar Batasunean, idazle eta idazlan baten nondiknorakoa, arrazoinak eta burruka (idazle baten agintearen kontrako burruka). Soljenitsyn idazlearen beraren historia da, autobiografia bat, presondegietatik aske, kontzentrazio zelaietatik kanpo, publikatzeko ez bada ere, idazteko behintzat libre izan den idazle baten hamabi urtetako historia.

Salatzeko ohitura aspaldidanik du Soljenitsynek. Eta Parisen ere hortan iraun du, betiko ekanduari* utsiz.* Soljenitsynen ustez, Sobietar Batasunari buruz informazio falta ikaragarria dugu. Sobietar Batasuna doi doi ezagutzen omen dugu. Eta ezagutzen duguntxo ere, gaizki. Informazio falta bakarrik ez baina dimisioa da gurea. «Zer egiten duzue askatasunaz»? Fronte guztietan amore eman besterik ez du egiten Mendebaldeak,* hala nola, Ekialdeko* Europan, Vietnamen, Portugalen. Eta hori guztiori, beti sistema komunistaren faboretan. Eta askatasunaren kaltetan.



Soljenitsyn

«Iraultzaren martiria ala kontrairaultzaren kantaria?»

Hona Soljenitsynen salakuntza. Nor da Soljenitsyn? Iraultzaren martiria ala kontrairaultzaren kantaria? Soljenitsynen ustez, guk ez dugu Sobietar Batasuna ez ezagutzen ez ulertzen. Eman dezagun hala dela. Baina esan behar dugu ere, Soljenitsynek berak ere ez duela gure herria ez situazioa konprenitzen. Agian,* Mendebaldeak, berarentzat, «idolo bat izan zelako» errealitate bat baino gehiago. Inpresio berau izan nuen, Sobietar Batasunean izan nintzenez ere. Hain zuzen, Soljenitsynen adiskide batzurekin,* haien etxean afaldu genuen. Sozialismoari eta kapitalismoari buruz eztabaidan ari ginelarik, liberalismoan ikusten bide* zuten irtenbidea. Baina, kasu!*, liberalismo hori ez zen Mendebaldean ezagutzen dena.

Haiek amesten zuten liberalismoa ez da inon. Haiek proposatzen zutena, hango sistemaren antidotoa zen; eta haiek eskatzen zutena, askatasun gehiago zen, bai politikan eta bai ekonomian. Aitortu zidatenez, amesten zutena, azken finean, autogestioa* zen, Jugoslaviakoa baino are* egiazkoagoa eta aniztasun* politiko batez hornitua. Horra!

Uste dudanez, antisozialista denentz* aparte eta ukitu* gabe utzirik, Soljenitsynek ilusio bat galtzearen mina du. Baina jakin behar luke ere, gure herria ez dela sekula Paradisurik izan. Kolonialismoa ez luke sekula ahanztu behar, eta abar. «Gulag Uhartedia» idatzi zuenak, «Mendebal Uhartedia» ere idatz dezake, gai faltaren beldurrik gabe. (Joan Mari Torrealdai)

«Aguirre, la colère de Dieu»

Egia esanez hasi behar baldin badut, euskaldun bati buruzko filmea delako joan nintzen ikustera. Eta ikaragarriro gustatu zait, ez euskaldun bati buruz delako, filme oso ona delako baizik.

Filmeko pertsonaia, Lope de Agirre, araoztarra, da. Saldua edo traidore izendatzen den hura.* Klaus Kinski da filmean Agirre. Pelikulraen benetako gaia, Agirreraren pertsonaia baino gehiago (edo honen bidez) gutizia,* handinahia, indar gosea, frakasuaren liluramena*... dira.

1560. urte inguruan, Pizarroren gidaritzapean, espainiar menturazale* zenbait Amazonian sartzen dira. «El Dorado» amestuen atzetik. Urregorriaren kolore gehiegi ispiatzen da haien begietan. Bide urratzaile bezala, talde ausart* bat izendatzen du Pizarrok. Ursuak gidatuko du, Agirre duelarik bigarren. Bideko arriskuengatik eta helburuaren urrunagatik oiloturik edo, Ursuak atzera egin nahi duenean, Agirreraren menpean dago talde osoa. Espainol koroarekiko harremanak hautsi eta independentzia aldarrikatzen* du. Hibaiauren urekin batera, taldea ba doa... aurrera eta aurrera. Nora? Ez daki inork. Edo bai: amesturiko eta aginduriko paradisu baten bila doaz, urrearen, ondasunen paradisuaren bila. Ezin hel, ordea. Indioen zagitek,* eritasunek* eta taldeko haserreek biderditan utziko dituzte. Agirrek azkeneraino zutik dirau. Bakarrik baina zutik. Zutik baina zoraturik.

Filmegilea Werner Herzog alemana da. Filme hau fraide baten egunkaritik ateraia da, eta krnoika moduan emana.

«Aguirre, la colère de Dieu» oso filme ederra da, biziki ederra. (Joanes Lekerika)

ARANZAZU

Automobilak alokatzeko etxea



Avda. Hurtado de Saracho, 10
(Begoñako gasolindegia ondoan)

Telefonoak: 33 21 10 - 33 33 47

BILBAO - 6